

*Otsailaren 12ko 2/1981 LEGEA, "Eusko Legebiltzarkideen ukiezin eta iareitasun-eskubideen aitorenari buruz".*

Indarrean dagoen 1978garreneko Abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 2, 137, 147 eta 152garren Atalek, besteak beste, egiten dituzten adiarazpenen arauera, Elkarte Autonomiadunak Espainiako Erresumaren Erakuntza berriaren zati dira.

Alde honetatik, esandako Elkarte hoietako Legebiltzarrak, bakoitzari bere Estatutoak berariz izendatzen dizkion Legegintza ihardunetan ari direla, Erresumaren Ihardutze-Erakunde dira nolana ere, eta Konstituzioaren eta Estatutoaren aginduz, bere ardurapeko gaietan Erresumako Gorte Nagusien maila bereko direla.

Horri darionez, Espainiako Erresumako Elkarte Autonomiadunetako Legebiltzarkideek Gorte Nagusietakoenen egiteko eta eskubide berberak dituzte, bere bereizkuntza onartzen dituzten Agintzen arteango ezein lehentasun-mailatetik ez, baina hoiak erabilgarri izango direneko lurralde-eremutik baino ez datorkiela.

Legegintza-Agintaritzaren ordezkoen ukiezinari eta iareitasunari buruzko legebiltzarkide-eskubideak, kondairan, Legebiltzarraren Erregeagintearekiko askatasunaren nahi eta ezko berme gisa sortu ziren; irizpide horren esangura, gaur, zera da: Legegintza-Agintaritzaren Egintzapide eta Epailaritzza-Agintaritzarekiko atzera ezineko askatasuna, legebiltzariareitasunari dagozkionetan, legebiltzarkide bat auzipideratzeko aurrez Biltzarrak hori erabaki beharrean gauzatzen dela.

Erresuma berriko Legegintza-Agintaritzatakoen iareitasun-eskubideok Espainiako Konstituzioaren 71garren Atalean eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 26garrenean berariz aitortzen eta araupetzen dira nahiz eta, Estatutoan, Eusko Legebiltzarkideak epai eta auzipideratzeko aurrez "auziperatze-eskea" eskatu beharra aipatu ez.

Baina, hala ere, aipatze ez hori, lehen esandako guztizko irizpide hoiak nahi eta ez erabili beharrik ez ezik, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoko Aldibaterako Erabakietatik Lehenengoaren azkeneko idazlerroek dakarten aginduz ere gaindituta gelditzen da, Diputadu-Batzarreko Araudia ordezkari erabilgarri dela adierazten duenean, horrek, bere 17garren eta 18garren Ataletan legebiltzarkideen ukiezinaren eta iareitasunaren ondorioak aztertzen bait ditu; ordezkotasun hori, bestalde, Erresumaren Lege Nagusiko 149garren Atalaren 3 zatiak ematen duen irizpideak guztientzat eta Konstituzio-mailan sendetsita dago.

Hoiak horrela, eta lege batek Elkarte Autonomiadunetako Legebiltzarkideen iareitasun-eskubidea zeharbidez ez, baina zehazki egiteratuz, Legebiltzarkideren bati buruzko epaibideetan hasteko Biltzarrak berarizko baimena aurrez eman behar duela esateari noraezeko eritzita, Eusko Legebiltzarrak honako Lege hau onartzen du.

Lehenengo Atala.– Eusko Legebiltzardikeak, bere egitekoa betetzen ari direla emandako iritzi eta botoegatik ukiezinak izango dira, bai bere Legibiltzarkide-aldia bukatu ondoren ere.

Bigarren Atala.– 1.– Legebiltzarkideek ezingo dira egotzi dakizkieken legehausteegatik atzi ez askatasunez gabetu, legea hausten bete-betean harrapatutakoan salbu., Elkarte Autonomiadunaren lur-eremuaren barruan egin-ustekoak direnean erabakia Euskal Herriko Goren-Auzitegiari dagokiola.

2.– Euskal Herriaren lur-eremunik kanpoetan, zigorlegezko erantzukizuna Auzkitegi Nagusiko Zigorlege-Sailean eskatu ahal izango zaie, esandako modu berean.